




UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

ERRI Pape Ra

2016ko abendua • 44. zenbakia



UEMA 80 udaletara helduta, udalERRI euskaldunen LURGunea zabaltzen ari da



Euskara bermatu gabe osasun etxean

HERRIZ HERRI BILDU DITU DATUAK UEMAK
UdalERRI euskaldunetako familia medikuen
Laurdenak eta pediatrien herenak ez dira
gai euskaraz aritzeko. **4. ORR.**

'Euskara' BILDUMAKO LEHEN LAU LIBURUAK

KATXIPORRETA KOOPERATIBAREKIN ELKARLANEAN
ARNASGUNEI BURUZKO HEZKUNTZA PROIEKTUA
Haur Hezkuntzara ere zabalduko du UEMAK,
LIBURUREKIN ETA UNITATE DIDAKTIKOEKIN. **6 ORR.**

BOST UDAL BERRI EUSKARAREN LURGUNEARI

MENDARO, LARRABETZU, ERREZIL, ATAUN eta AREATZAKO UDALEK UEMARA SARTZEA ERABAKI DUTE

Urtarrilean egingo du UEMAk batzar nagusia, eta orduan aztertuko dituzte mankomunitatera sartzeko udalek egindako eskaera berriak. Behin batzar nagusiak lau udal berrien eskaerak onartzean, 81 udal izango dira UEMako kide.


SORRERAKO 17 UDALETATIK GAUR EGUNGO 81 UDALETARA

Azken asteotan egin dituzten udal osoko bilkuretan, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatera sartzeko erabaki dute Mendaro, Ataun, Errezil, Larrabetzu eta Areatzak udalek.

Urtarrilean UEMako udal ordezkariak egingo duten batzar nagusiak udal berrien eskaerak onartzen dituenean, beraz, bost udal berri hauek gehituta, 81 udaletara iritsiko da UEMA, eta inoiz baino udal gehiagok osatuko dute mankomunitatea. Hurrengo hilabeteotan, gainera, beste batzuk gehiago ere izan daitezke, UEMara sartzeko interesa agertu duten eta horretarako lehen urratsak egin dituzten udalak kontuan hartuta.

UEMAk maiatzean gogoratu zuen moduan, 25 urte igaro dira euskararen aldeko herri mugimendutik UEMA sortu zenetik. 1988an Euskal Herrian Euskaraz elkartearen mozio bat onartu zuten Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 32 udalek, udalak euskalduntzeko eta euskara hutsean funtzionatzeko. Horretarako zailtasunak eta arazo komunak zituztela ohartuta, udal haietako batzuk elkarren artean biltzen eta koordinatzen hasi ziren, udalak ere euskaraz lanean hasi ahal izateko, eta horrela, mankomunitate izaera hartuta, erakunde publiko bihurtu zen UEMA.

Sorrerako batzarrean 17 udalek hartu zuten parte, Aizarnazabalen, eta ordudanik hazten joan da udalerrri euskaldunen lurgunea, bai udalen kopuruari dagokionez eta, beraz, baita biztanleei dagokienez ere. **240.000 BIZTANLEKO LURGUNA** 81 udal hauen artean, zehazki, 240.000 biztanle inguruko lurgune euskalduna osatzen



dute. Udal horietan guztietan, UEMako kide izatea onartuta, “euskara erdigunean jartzea erabaki dute nolabait udalek, gure hizkuntzari dagokion lekua emateko”, UEMako lehendakari Josu Labakaren iritziz.

Euskara erdigunean jartzea, gainera, “gure herrien iraupena bermatzeko ez ezik, garapena sustatzeko modua ere bada UEMArentzat”, Labakak nabarmendu duenez: “Garapen iraunkorra, euskara erdigunean jarrita. Euskararik gabe, herri

“HERRI HAUEK GEHITUTA, 81 UDALETARA HELDUKO DA UEMA, 240.000 BIZTANLE INGURUKO LURGUNE EUSKALDUNA OSATUZ”

hau ez baita garatuko. Herri honek, euskararik gabe, ez baitu iraungo. Beste herriren bat izango da beharbada, baina ez behintzat euskararen herria, ez Euskal Herria”.

Hain zuzen ere, euskararen ezagutzak eta batez ere erabilerak izandako beheranzko joarak kezkatu ditu bereziki UEMara sartzeko eskaera egin duten herri berrietako udalak.

Ataunen, esaterako, duela bi urte egin zuen diagnostikoa Ataungo Euskara Taldeak, eta emaitzak nabarmenak izan ziren: “erabileraren jaitsiera ikaragarria” sumatu zuten Karmele Aierbe euskara zinegotziaren hitzetan, eta orduan erabaki zuten “neurriak hartu eta gainbehera nola edo hala irauli” behar zutela. Iritzi berekoa da Mendaroko alkate Sonia Garcia ere, “euskararen bilakerak izandako beheranzko joera irauli” nahi baitute UEMara sartzeko urratsa eginda.



Herria: AREATZA
Herrialdea: Bizkaia (Arratia)
Biztanleak: 1.195
Euskaldunak (indizea): %71

Abenduaren 1ean egindako udal osoko bilkuran onartu zuen Areatzako Udalak UEMara sartzeko, alkatearen eta EH Bilduko gainerako lau zinegotzien botoarekin, eta EAJko lau zinegotzien abstentzioarekin.

Yazmina Beobide Euskara zinegotziaren arabera, bi arrazoi nagusitan oinarrituta hartu dute erabakia. Batetik, euskararen erabilera datuek sortutako kezka nabarmendu du. “Datuek kezkatzekoak dira, eta UEMaren laguntzarekin euskararen aldeko jarrerak indartu eta egoerari buelta ematen ahalegindu nahi dugu”. Bestetik, arreta hizkuntza eskubideetan jarri nahi izan du: “euskaraz egin nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko dagokigu erakunde publikoari, eta horretan UEMaren eta UEMako teknikarien laguntza ondo etorriko zaigu”.

Areatza Arratia eskualdeko udalerrri euskalduna da. 1.195 biztanle ditu eta euskaldunen indizea %71,17 da. Euskararen erabilera, ordea, hamar puntu apalagoa da.



Herria: MENDARO
Herrialdea: Gipuzkoa (Debabarrena)
Biztanleak: 2.037
Euskaldunak (indizea): %79

Urriaren 27ko udal osoko bilkuran erabaki zuen Mendaroko Udalak UEMAn sartzeko eskaera egitea, aho batez, EH Bilduko 5 zinegotzien eta EAJko 4 zinegotzien aldeko botoekin.



Herria: ATAUN
Herrialdea: Gipuzkoa (Goierri)
Biztanleak: 1.700
Euskaldunak (indizea): %90

Azaroaren 3an erabaki zuen Ataungo Udalak UEMara sartzeko, udal osoko bilkuran, aho batez, EH Bilduko eta Herrigintzako zinegotzien aldeko botoekin.



Mendaroko alkate Sonia Garciaen hitzetan “ilusio handiarekin” hartu dute erabakia, “UEMAko kide izan eta euskararen aldeko politika ausartak eta aurrerakoia elkarlanean egiteko”. Udalerrri euskalduna izan arren, azken urteotan behera egin du euskararen erabilera eta ezagutzak Mendaron. Horregatik, “ahal den heinean beheranzko joera irauli eta euskararen arnasgune izaerari eutsi” nahi diote UEMako kide eginda.

Alkateak nabarmendu duenez, “asko galdu da garai bateko kaleko giroa. Ez da lehengoa. Herri txikia da Mendaro, baina duela 10-15 bat urte etxe berri asko eraiki ziren, eta kanpotik jende asko etorri zen, batez ere alboko herri handiagoetatik. Horrek eragin nabarmena izan du euskararen bilakeran eta beheranzko joeran, eta hori irauli nahi dugu”

Ataungo euskara zinegotzi Karmele Aierberentzat “poz handia” izan da hartutako erabakia, “batetik, Atauni heldu zaiolako azkenean UEMako kide izateko garaia eta, bestetik, Ataunek ere erabaki honekin euskal komunitateari bere ekarpena egiteko aukera izango duelako UEMako kide izanda. Udalerrri euskaldunak batzea garrantzitsua da, eta oso pozik gaude”.

Duela bi urte egin zuen Ataungo Euskara Taldeak euskarak herrian izandako bilakaeraren diagnostikoa, eta “erabileraren jaitsiera ikaragarria” sumatu zuten, Aierberen hitzetan. Orduan erabaki zuten “neurriak hartu eta gainbehera nola edo hala irauli” egin behar zutela. Euskara zinegotziak ingurumari horretan kokatzen du Udala UEMako kide izateko erabakia.

Herria: ERREZIL
Herrialdea: Gipuzkoa (Urola Kosta)
Biztanleak: 600
Euskaldunak (indizea): %92

Errezilen ere zinegotzi guztiek aho batez hartu zuten Udala UEMara sartzeko erabakia, azaroaren 8an egindako udal osoko bilkuran.



Herria: LARRABETZU
Herrialdea: Bizkaia (Txorierri)
Biztanleak: 2.000
Euskaldunak (indizea): %80

Azaroaren 16an izandako udal osoko bilkuran hartu zuen UEMara sartzeko erabakia Larrabetzuko Udalak, eta herritar ugari agertu zen udalbatzarrera, erabakia sustengatzera. Udal Gobernu osatzen duten EH Bilduko 6 zinegotzien aldeko botoarekin eta EAJko 5 zinegotzien aurkako botoarekin hartu zuten erabakia. Ohi ez bezala, udalbatzar aretoa mukuratu bete zen, eta zenbait herritarrek ere hartu zuten hitza udalak hartutako erabakia zioriontzeko.

ESKUALDEKO ERREALITATEA, EZBERDINA

Larrabetzuko Udalak euskara zerbitzua Txorierriko mankomunitatearen baitan antolatua du, baina Larrabetzuko Udalaren iritzia da Larrabetzuren errealitate linguistikoa ezberdina dela mankomunitateko kide diren gainerako udalerriekiko, eta udalerrri euskaldun bati dagokion hizkuntza politika berezitua behar duela Larrabetzuko: “Udalerrri euskaldunek hizkuntza politika bereziak behar dituzte, eta egun ditugun balibideekin horretarako aukerarik ez dugunez, bereziki udalerrri euskaldunetan lanean ari den UEMA bezalako mankomunitate baten zerbitzuak” baliatu nahi dituzte lanerako.

Errezilgo Udalaren iritziz, “arnasgune izaerako herri askotan gertatzen dena gertatzen zaigu guri ere: euskaldunak garetela eta ustez euskaraz funtzionatzen dugula. Beraz, ez diogu aparteko arretarik jartzen euskara zaintzeari. Baina seguru txikikeria askotan egin dezakegula zer baita, eta UEMak eskain dezakeen laguntza tekniko erabakigarria izango da horretarako, bai Udala eta bai herritarrek euskaraz bizi ahal izateko”.

Euskara osasun-etxeetan

UdalERRI euskaldunetako osasun-etxeetan familia medikuen laurdenak eta pediateren herenak ez dira gai euskaraz aritzeko

Datu esanguratsuak eman zituen UEMAk urrian, hedabideen aurrean egindako agerraldian. UEMAk kide diren herrietako osasun-etxeetan bildutako datuak dira: "Guztira, 289 pediatria, familia eta larrialdi mediku daude UEMako herrietan, eta horietatik 73 ez dira gai euskaraz aritzeko. %25. Lautik bat, alegia. Familia eta larrialdi medikuen artean, 233tik 53 dira euskaraz aritzeko gai ez direnak: %22. Pediateren kasuan, berriz, 56tik 20 ez dira gai euskaraz aritzeko: %35".


Urte askoan eman du UEMak herritarrek medikuarekin euskaraz egiteko duten zailtasunen berri, eta aldaketak aldaketa, bere horretan irauten du arazoak. Hori dela-eta, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zein Nafarroako osasun etxeetako profesionalen hizkuntza-gaitasunen azterketa egin du UEMak aurtan. Horretarako, Osakidetza zein Osasunbideko plantillak begiratu ditu, eta udalerriz udalerriz hitz egin du euskara teknikari, politikari, anbulatorioetako langile eta herritarrekin.

2013an egin zuen honelako azken azterketa UEMak, eta Etxarri Aranazko alkate eta UEMako zuzendaritza batzordekide Eneka Maizen hitzetan, "ordudanik osasun-etxe batzuetan egoerak hobera egin badu ere, beste batzuetan okerrera egin du edo bere horretan irauten du. Udalerriz batzuetan, bereziki larria da egoera. Izan ere, sendagile edo pediatra guztiak dira euskaraz egiten ez dutenak. Horrek esan nahi du herri horietako bizilagunak behartuta daudela gaztelaniaz hitz egitera medikuarekin".

Hori dela-eta, lankidetzarako proposamena egin dio berriro UEMak Osakidetza eta Osasunbideari, egoera hobetzeko pausoak emateko.



UEMAko lehendakari Josu Labakak eta Etxarri-Aranazko alkate Eneka Maizek eman zituzten datuak, eta ondoan izan zituzten UEMako hainbat zuzendaritza batzordekide, Aramaio, Baztan, Berastegi, Dima, Leitza, Oiartzun, Oñati eta Usurbilgo alkate edo zinegotziekin batera.



Grafikoa: Argia aldizkaria.

H HEZKUNTZA

Haur HEZKUNTZAN euskara LANTZEKO LAU LIBURUKI, KATXIPORRETA KOOPERATIBAREKIN ELKARLANEAN

Euskararen arnasmuneei BURUZKO HEZKUNTZA proiektua Haur HEZKUNTZARA ere zabalduko du UEMAk urte berriarekin batera. Horretarako, Miren Amurizak idatzi eta Katxiporreta kooperatibarekin elkarlanean landutako LAU LIBURU BERRI ERABILIKO DITU, HAURRAK euskararen GARRANTZIAZ OHARTU daitezen. LIBURU bakoitzak GIDA DIDAKTIKOA ere izango du.



Euskara bildumako lau liburuetak bakoitzak bere unitate didaktikoa du, eta UEMako kide diren herrietako eskoletan lantze-ko aukera izango dute irakasleek, UEMako hezkuntza arduradunarekin elkarlanean.

Udalak euskaldundu arren udalerrriak erdalduntzen ari direla ohartuta, herritarren kontzientziazioa eta sentsibilizazioa da UEMaren ildo nagusietako bat azken urteotan. Horren baitan, ikasturte honetan UEMako herrietako ikastetxe guztietan ari dira lanean UEMako teknikariak, DBHko eta Batxilergoko ikasleekin, euskararen arnasmuneei buruzko hezkuntza proiektuarekin. Ekimen honek duen garrantzia ohartuta, izan duen erantzuna ikusita, eta batetik eta bestetik heldu diren eskaerei erantzuteko, orain, haur hezkuntza-zara ere zabalduko du proiektua UEMak.

Horretarako, elkarlanean aritu da Ka-

txiporreta kooperatibarekin eta Miren Amuriza bertsolari eta irakaslearekin. Euskara bilduma berria abiarazi dute Katxiporretak eta Elkar argitaletxeak, Amurizak idatzitako lau liburuekin. Liburu horien edukia idazteko UEMaren lana eta aholkularitza kontuan izan du Amurizak, eta UEMak unitate didaktikoak prestatu ditu liburu bakoitzaren inguruan, urtariletik aurrera eskoletan lantzen hasteko. Euskara da lau liburuen gaia, baina bakoitzak arlo ezberdin batetik jorratzen du.

Porrotxen herrian, esaterako, euskaraz bizi dira denak, eta hirira joaten ohar-tzen da badirela euskara hain ohikoa ez

den lekuak ere. Arnasmuneeen garrantzia erakutsi nahi du liburu honek.

Marimotots Extremaduran jaio zen, eta gaztelaraz mintzo zen han. Baina Euskal Herrira etorri eta euskara ikasi du. Euskalduntzean eta bertako hizkuntza ikaste- zabalitzen den mundu berria erakusten du liburuak.

Pirritx, berriz, euskaldun kontzientea da. Euskara munduari begiratzeko daukagun leihua dela dakiena eta altxor- ra zaindu nahi duena.

Pupu eta Lore haurrak, azkenik, euskaraz jolasten dira. Euskara dute amahizkuntza. Transmisioaren garrantzia oharrazi nahi duen liburu da.

HAURREKIN ETA GURASOEKIN LANTZEKO TAILER BERRIA PRESTATU DU UEMAk, ARNASGUNEI BURUZ

Euskararen erabilerak BEHERA BATIK BAT HELDUEN ARTEAN EGIN DUELA OHARTUTA, HAURRENTZAT ETA HELDUENTZAT TAILER BATERATUA PRESTATU DU UEMAk.

Helduak erreferenteak direnez haurrentzat, tailer berrietan helduak eta haurrak batera jartzea erabaki du UEMak, eskolan zein eskolatik kanpo hizkuntza hautuaren inguruko hausnarketa elkarrekin egiteko. Tailer berri honetan, hasieran teknikari bat gurasoekin aritzen da gela batean,



Haurrentzako eta gurasoentzako tailer berria Dimako eskolan eman zuten lehen aldiz UEMako teknikariak.

arnasmuneeen kontzeptua eta euskarak herrian izan duen bilakera ezagutaraziz, eta beste teknikari bat, aldi berean, haurrekin, euskara non eta noiz erabiltzen duten aztertuz. Azkenik,

haurrak eta gurasoak elkartu, eta denen artean hausnartzen dute hizkuntza ohiturez, eskolan, parkean, etxean eta beste lekuetan zer hizkuntzatan eta zergatik hitz egiten duten aztertuz.



Euskararen erabilera datuak neurtuko ditu UEMak



UEMAko kide diren udalerri guztietan neurtuko da euskararen kale erabilera.

UEMAko kide diren udal guztietako euskararen erabilera datuak neurtuko ditu UEMak 2017an, Soziolinguistika Klusterrarekin elkarlanean. Zehazki, udalerri euskaldunetako euskararen kale erabilera neurtuko da herriz herri. Herri askotan, kale erabilera neurtuko den lehen aldia izango da.

Iaz UEMAko kide diren herrietako azterketa sozioekonomikoa eta soziolinguistikoa egin ondoren, 2017an euskararen kale erabilerari arreta berezia jartzea eta erabilera neurtzea erabaki du UEMak. Udalerrri euskaldunen zaintza da UEMaren arlo estrategikoetako bat, eta horren baitan, prebentzioaren ikuspuntua txertatzeko eta euskara zeharlerrotasunean lantzeko saiakera berezia egiten ari da, udalerrien egoera sozioekonomikoan eragiten hasteko saiakerarekin batera. Horretarako, ikerketa lerro iraunkorra zabalik du, udalerri euskaldunen beharrak identifikatu, azterketak egin eta ondorioak ateratzeko. Ahalegin horretan kokatzen da orain udalerri euskaldunetan euskararen kale erabilera neurtzea, euskararen bilakaeraren inguruko azken azterketa soziolinguistikoen datuak eta beheranzko joera zenbateraino berresten diren ala ez ikusteko.

Euskara ikastea doan eskainiz, euskara ikasleak %35 igo dira Bortzirietako euskaltegietan

Irailean, euskaltegietako matrikulazio kanpainarekin bat eginez, 'Euskarara doan bidea!' kanpaina abiarazi zuen Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, euskara ikastea doan eskainiz. Erantzuna ez da nolatanahikoa izan: %57,8 egin du gora ikasle kopuruak ikasturte honetan Bortzirietako euskaltegietan. Doakotasunaren aldeko urratsa egin duten beste zenbait herritan ere datuak esanguratsuak dira. Iaz, esaterako, Orioko euskaltegian laukoiztu egin zen ikasle kopurua.



Ikasturte honetatik aurrera, euskara ikastea debalde izatea erabaki dute Bortzirietan. 'Euskarara doan bidea' kanpaina abiarazi dute horretarako, eta herritarren erantzuna ederra izan da.

2013an ehun lagun baino gehiagok gogoeta prozesu batean parte hartu zuten Bortzirietan, hurrengo urteotarako euskararentzako erronkak eta lehentasunak zehazteko. Herritarren euskalduntzeari eta alfabetatzeari zegokionez, helburu hau adostu zuten bertzeak bertze: euskalduntze-alfabetatzea unibertsalizatzea, prestigioatzea eta zabaltzea. Horra iristeko, euskara ikasteko diru laguntza politika berraztertzea eta euskara ikastea doakoa izan dadin bideak urratzea erabaki dute aurten. Testuinguru horretan kokatzen da Bortzirietako Euskara Mankomunitateak abiarazitako 'Euskara doan bidea' kanpaina. Doakotasunarekin, ikasleek nabarmen egin dute gora: 70 ikasle eman dute izena euskaltegian, iaz baino 25 ikasle gehiagok. Hazkundera batik bat lehen urratsean sumatu dute.



Lurralde antolaketan euskara kontuan hartzeko proposamenak, elkarrekin

EAEko lurralde antolaketarako gidalerroak berritzezakoan kontuan hartzeko proposamenak aurkeztu zituzten UEMak eta Kontseiluak Eusko Jaurlaritzari, irailean. Lurraldea antolatzerakoan, euskararen arnaguneak babesteko eta garatzeko neurriak dira, hizkuntza normalizazioa aintzat hartuz. EHUko bi aditu aholkulariren ekarpenekin osatu dituzte proposamenak UEMak eta Kontseiluak. Lurraldea eta Hizkuntza jardunaldiak antolatu dituzte bi eragileek elkarlanean azken hiru urteotan eta bertan jasotako emaitzak txertatu dituzte orain egindako proposamenean.



Unai Fernandez de Betoño aditu-aholkularia, Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusia, eta Josu Labaka, UEMAko lehendakaria, irailean, Eusko Jaurlaritzarekin izandako bileraren egunean.

Eusko Jaurlaritzak agintaldi honetan onartu nahi ditu EAEko lurralde antolaketarako gidalerro berriak. 2015eko azaroan hasitako prozesua 2018ra arte luzatuko da, tarte horretan eragile askoren proposamenak entzun ahal izateko. Erronda horren baitan, irailean UEMarekin eta Kontseiluarekin bilera izan zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak, eta bertan hainbat proposamen egin zituzten bi erakundeek, lurralde antolaketak euskararen duen eragina kontuan hartuta. Euskararen arnaguneak indartu, garatu eta aintzat hartzeko proposamen hauek, EHUko bi aditu aholkulariren ekarpenak biltzen dituzte: Unai Fernandez de Betoñorenak eta Iñigo Urrutiarenak, zehazki. Zortzi puntuz osatutako lana da eta besteak beste, honako gaiak jasotzen ditu: euskararen arnaguneen kontzeptua gehiago garatzea, garapen orekatua bultzatzea prebentzio neurrien (Eragin Linguistikokoaren Ebaluazioa, adibidez) edo neurri zuzentzaileen bidez, edota hizkuntza-dinamikak kaltetzeko arriskua duten egitasmoei mugak jartzeko aukera ematea. Kontseiluaren eta UEMaren iritziz, "Euskararen Lurralde Plan Sektoriala ere garatu beharko litzateke berandu baino lehen".

Euskararen Egunean, hainbat erakunde batera



Euskararen Egunean harira adostutako adierazpena Bilboko Guggenheim museoan aurkeztu zuten azaroaren amaieran, EAEko hainbat erakunde publikotako ordezkariak. Tartean izan zen UEMAko lehendakari Josu Labaka ere.

Euskararen Egunean harira, aurten, hainbat erakunde publikok eta euskalgintzako zenbait eragilek adostutako testuarekin bat egin du UEMak. Adierazpena eta atxikimenduak azaroaren amaieran aurkeztu zituzten erakunde publikoetako ordezkariak, Guggenheim museoan egindako agerraldian.

Ekitaldian, UEMAko lehendakari Josu Labakak nabarmendu zuenez, "ederra da aurten erakusten ari garen irudia. Ederra da euskara lau haizetara zabaltzeko askotariko erakunde publikoak batera agertzea, denok euskararen alde". Dena dela, euskararen biziberritzean eta normalizazioan herritar soilen ardura eta erakunde publikoena ezin dela parekatu adierazi zuen, eta erakunde publikoei euskararen aldeko hizkuntza politika ausarta eta aurrerakoa eskatu zien, "normalizazioari beste bultzada bat emateko epea" heldu dela iritziz.

2017an ere EUSKARAZ GARA!

UEMAko kide diren
udaletan, hizkuntza paisaia
euskalduntzeko eta urte
osoan zehar euskaraz garela
gogorarazteko, aurten ere
egutegiak banatu ditu Uemak,
udal eraikinetan eta udal
zerbitzuetan ikus daitezen.



UdalERRI euskaldunen BERRI, egunero: URTE osoan zehar, sarean etenik gabe jaso daiteke UEMAreN informazioa UDALERRI euskaldunen informazioa



Esku artean duzun *Berripapera* urtean bi aldiz banatzen da UEMAko kide diren herrietako postontzietan. UEMAreN berri izan nahi duenak, ordea, sarean ere aukera zabala eta hurbila du, urte osoan zehar. Webguneko edizio jarraituaz gain, sare sozialetan ere aurki daiteke UEMAreN berri. Argitalpenak, berriz, Issuu bidez irakur daitezke, PDFan. Emari hilabetekaria, esaterako.

Webgunea: uema.eus · Twitter: [@uema_eus](https://twitter.com/uema_eus) · Facebook: [UEMAeuskaraz](https://www.facebook.com/UEMAeuskaraz) · Issuu: [uema_eus](https://issuu.com/uema_eus) · Youtube: [UEMAeuskaraz](https://www.youtube.com/UEMAeuskaraz)